


Astekaria



elgoi



GAZTETASUNA ETA ESPERIENTZIA  
ELGOIBARTARREN ZERBITZURA




# Erantzukizuna



eusko  
alkartasuna

## Lan egiteko beste era bat



## ETXEBIZITZA KOOPERATIBA MENDARON

**ARRASATEKO  
INMUEBLE-AGENTZIAK  
MENDAROKO  
ETXEBIZITZEN BIGARREN  
KOOPERATIBAREN ERAKETA  
SUSTATZEN DU**

2-3-4 gela, sukaldea,  
bainugela eta komuna,  
garaje indibidual itxita,  
trastetegia, propano gasa  
eta berokuntza indibiduala  
dituzten etxeak.



**Anboto**

**INFORMAZIOA  
ETA INSKRIPZIOA:**

**ANBOTO INMOBILIARIA**

**79 20 48**

**☎ 77 14 11**

**ARRASATE**

elgoi**BARREN**

Nafarroa enparantza 2

☎ 74 41 12

**ARGITARATZAILEA:**

Elgoibarko Izarra.

**LAGUNTZAILEA:**

Elgoibarko Udala.

**HIZKUNTZA ARDURADUNA:**

Anjel Ugarteburu.

**KAZETARIAK:**

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

**MAKETATZAILEAK:**

Maitte Rementería,

Edu Sanz.

**PUBLIZITATEA:**

Nekane Etxaniz.

**ADMINISTRAZIOA:**

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste.

**KOLABORATZAILEAK:**

Andres Alberdi, Esteban Antxustegi, Pello Arrieta, Felix Arrizabalaga, Belen Arrizabalaga, Mikel Artola, Mikel Cornejo, Izaskun Elizburu, Jon Etxabe, Jon Eugi, Koldo Galdona, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Lorea Gorostiaga, Xabier Gorriti, Ana Igartua, Maite Iriondo, KOKOE, Joseba Konde, Edurne Kortia, Imanol Larrañaga, Antonio Matias, Susana Mujika, Maite Solozabal, Karmelo Urdangarin, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta.

**BANAKETA ARDURADUNA:**

Imanol Larrañaga

**INPRIMATEGIA:**

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

**TIRADA:** 3.500 ale

**LEGE GORDAILUA:** SS-1.038/92

**ISSN:** 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



## 1, 2, 3, ... 1, 2, 3, ... Ar! Firmes!

**H**orrela jarri nahi dituzte gazteak. Bizitzak berak nahikoa tente jarriko ez bagintu bezala. Egin behar ditugunak egitearekin, entzun behar ditugunak entzutearekin, eta esan beharrekoak esatearekin nahikoa izango ez bagenu bezala!

Azken urteotan mugidarik handiena izan da. Batzuei belarriak gorri gorri jarri dizkie INTSUMISIOA hitzak; beste batzuk ez dute bere aurrean minutu bat bera ere galtzeko intentziorik azaldu, eta GAZTEAK, gela ilun hotz batean sartu ditu... baina larria al da?

Hain potoloa al da, hain ulertezina, gizabanakoarenn askatasuna aldarrikatzea? Bakoitzaren ideiak azken muturreraino eraman nahi izatea, tiro hots artean berdez jantzita ez ibiltzeari HITZEZ aurre egitea... astakeria hain handia al da ba????

Aspaldi honetan askotan entzun izan dut intsumituen hiztegitik, SOLIDARITATE hitza orain dela asko ezabatu zutela. Buztana hanka artean izkutatuta, gehiengoari bizkarra erakusten diotela... BAI ZERA!!

Azpijokoz soldaduska urrutiratzeagatik, dirua barra barra

ixuritzea ez da gaizki ikusten, kasu horietan ez da solidaritate eza aipatzen, konforme! Ados! Biharamunerako ideiak aldatuko dituztenaren esperantzaz, bere lepoa jokoan jartzen duten gazteak, okerrago ari al dira akaso?... Zergatik orduan horrenbeste iskanbila, zergatik horrenbeste mutur luze, zergatik horrenbeste ezezko, zergatik horrenbeste mesprezu?


Gizartetik urrutiratzea, lanik garrantzitsuenetik alderatzea, arrazoiaren ahotsa itotzea izan da, gure bizitza nolabait kontrolatzen saiatzen direnen erantzuna. Baina zorionez, gero eta gazte gehiago dira elkartasun pauso ikaragarri hau emanaz, aintzinako egoskortasuna lurretik botatzen saiatzen direnak.

Baina izan argi ideia hau:

Epaileei, abokatuiei, gizarteari eta soldaduska bera baino luzeagoa den gartzela zigor bati aurre egiteko gai den gaztea, ez da kapritxoaz ari, duintasunez baizik. Inori ez baitzaio berdez jantzita, bota handiz, pistolekin jolasten urtebete galtzea gustatzen... Baina hori da legea eta aldatu artean, milaka borrorok aurpegia ematen jarraitu beharko du.

Susana Mujika

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*





## KEXAK

107. zenbakian kexen atalean esandakoari erantzunez, Udaletxeko Elektrizistak zera esan du:

- Belardian dauden farolak, Hirigintza Batzordearen erabakiz, Arregitorre auzoan ipintzeko direla.
- Dauden tokian egotearen arrazoia Udal Biltegietan ez direlako kabitzen da, grua edo garabi berezietan ekarri baitziren.
- Hiritarrek zalantzak dituztenean beregana joateko eta gustura emango dizkiela azalpenak.
- Azkenik, kexak eta informazio falta ez direla nahastu behar esan nahi dio kexa eman zuenari.



## TXALOK

Mendizale batek Karakateko iturriaren ur etorria berreskuratu duen pertsona zoriendu eta txalotu nahi du. Orain bi hilabete baino gehiago sikatu omen zen iturria eta manantiala topatu eta berau errekuperatu du. Hari doakio aste honetako txaloa.

# ESKUTITZAK

## Euskara ikasleak diskriminatutak

**D**uela hilabete batzuk onartu ziren Elgoibarren euskararen erabilpena zuzpertz eta arautuko duten udal ordenantzak. AEK euskaltegiak hutsune bat somatuta helduen euskalduntze alfabetatzean, aportazio bat egin zuen, hau izan zelarik aipatu aportazioa: “Herriko langabetu, ikasle eta jubilatu guztiek euskalduntze, alfabetatze eta EGA ikastaroen matrikula ordaintzerakoan Udalak ematen duen diru laguntza izango dute; langabetu, ikasle eta jubilatuak aukeratutako legezko herriko edozein euskaltegitan”.

Puntu honen inguruan duten iritzia jakin nahirik, alde batetik herrian euskararen inguruan lanean dihardutenengana jo genuen eta bestetik sindikatuengana, AEK euskaltegia aukeratzaren duten langabetu, ikasle eta jubilatuak Udalaren aldetik jasaten duten diskriminazioa arazo soziala ere iruditzen baitzaigu, ez dutelako jasotzen Udalaren aldetik Udal Euskaltegia aukeratzaren dutenek jasotzen dutena, hau da, matrikula erdia Udalak ordaintzea, langabetu, ikasle, jubilatu eta elgoibartar izate hutsaren truke.

Sindikatu, ikastetxe (Elgoibarko Izarra, ELA, LAB, CCOO, Lanbide Heziketako eta Institutuko zuzendaritza batzordeak, Herri Eskola, Ikastolako langileak, Zazpiki Irratia, Taupada, Ekekei ebarren iritzia gure puntua- ren guttiz aldekoa izan zen, beraz, Udaletxean sartu genuen eta alderdien erantzuna hauxe izan zen:

PSOEk abstentzioa, HBk baiezkkoa, PNVk eta EAK ezezkoa (EA ados egon arren, botua ematerakoan beste puntu bat tratatzen zihardutelakoan, zinegotziak ezezkoa eman zuten).

Ez dugu ulertzen PNVren jarrera, batez ere, kontuan izanda alde batetik, AEK eta Jaurlaritzaren arteko negoziaketetan akordioak lortu direla eta bestetik, SIADECOren ikerketaren emaitzetariko bat kanpaina bateratuak eginez langabetuak gehiago bultzatzea izan

zenean.

Zer eta euskara ikasteko, zer dela eta diskriminatu herritar batzuk PNVk?

AEK Euskaltegia

## Hirugarren milaurtekoa

**B**igarren milaurtekoaren azken mugimen- duak ematen ari direnean, hirugarren milaurtekoaren ateetan utziko gaituen legegintzaldi berri bati emango diogu hasera, honetarako EAJ-PNVren konpromezua Elgoibarko herria aurreko postuetan uztea izango delarik.

Horretarako udaletxea erabiliko dugu gizarte hau dinamizatuko duen indar higierazle gisa, administrazioaren hobekuntza administrazio barrutik bertatik hasiz, eta arazoaren tratamendua- ren azkartasuna eta zerbitzuen kalitatea bezalako alde kualitatiboak aldatuz.

Alde kualitatiboetan, Elgoibarko herria lau legegintzalditan zehar administratu ondoren, EAJ-PNVk IMH, Herriko Antzokia, Mintxeta, Kultur Etxea, Liburutegia, hiltegiaren berrabil- tzea brigadaren egoitza modura, baserrietarako bideak, San Migeleko frontoiaren estaltzea, gizarte lokala Urruzunon, hiriko zein bideetako azpiegituren birmoldaketa... posibilitatu dituen udal gestioan eraginkortasun sinistrazgarria era- kutsi du.

Eraginkortasun honen erakusgarri bistakoa da EAJ-PNVko zinegotzi batzuk beste batzuei beren erantzunkizunak igortzea, honek hauteskunde- bezperan erritimo berarekin lanean jarraitzeko aukera emango duelarik, eta San Roke auzorako bonbaketa estazioa bezalako egitasmoek argia ikusiko dute, eta beste egitasmo batzuk heltzen hasiko dira, hala nola, Urasandira igotzeko arazo- aren irtenbidea eta ibaiaren mozketa.

Bistan denez, sail bakoitzeko arazoetarako pertsona egokienak aukeratu ditugu, gaztetasuna eta pertsona trebatuak elkarnahastuz, indarra eta ilusioa duen esperientzia kontrastatuko kombina- keta bikain batean. Ni ere oso ilusionaturik nago lau urteko legegintzaldi honek suposatuko duen erronka erakargarriatik.

Gillermo Garate, EAJko alkategaia

## HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK






**P**lazako frontoian ateratako erretratu hau 1947. urtekoa da eta **Juanito Gorostizak** ekarri digu erredakziora. “Vuelta a la costa” egiteko asmoz bildu ziren Plazan. Gehienetan bizikleta gainean egiten zuten ibilbidea baina oraingoan automobileraz joan omen ziren. Amorebieta, Gernika, Lekeitio eta Ondarru bisitatzen zituzten eta eguna

bapo pasa ondoren, etxera buelta.

Atzean, ezkerretik eskumara: **Jose Mari Igartua, Luis Irureta, Roke Gabilondo, Manuel Unzueta “Patxika”, Jose M. Regil, Juan Manuel Ibarluzea eta Felix Agirrebeña “Kirru”**.

Makurtuta: **Rufino San Martín “Soarte”, Juanito Canales, Manolo Gil “Patri”, Fermin Arrese, Juanito Gorostiza eta Manuel Aizpiri “Talaixa”**.



## Ttipi ttapa, ttipi ttapa

Maiatzak ekarri digu berotasuna eta arropak arintzeko beharra. Eguraldi ona, eguzki beroa eta haize epela pasiaratxo bat emateko lagunik onenak dira. Egunotan asko eta asko dira San Lorentzora, Andikano aldera, Mintxetako zelaian bueltaka edota gogor dabiltzanak Berasetaraino igotzen ikusten ditugunak. Goizean freskotasunarekin, bazkalostean, edo iluntzean, arratsaldeko beroa eta gaueko epela nahasten diren tarte horretan pasia egitea, kirola baino, plazerra dela baieztatzea ez da gehiegikeria. Presarik gabe, sosiuz eta erritmo gordeaz, eta parajeaz gozatuz, horra hor udaberri bero baterako plazer osasuntsua.

**E**guraldi onarekin erabat hedatzen da pasia joateko ohitura. Arrazoi ezberdinak bultzatuta, osasun arazoengatik batzuk, neguan pilatutako kiloak kentzearren besteak, edozein arrazoi da balekoa ordu erdiko, ordubeteko edo gehiagoko bueltatxo emateko. Elgoibarren ez da

eginkizun honetarako lekurik falta: San Lorentzo, San Migel aldea, Berasete, Andikanorako bidea, Karkizano aldea... Adin aldetik ere, pasia edonork egin dezake. Badira honetan beteranoak direnak, urte osoan zehar, ordu berean egunero, hutsik egiten ez dutenak.

Eguneko ordurik jen-

detsuena bazkalostea izaten da. Dena dela, azken aldian bero larregi egiten du ordu horretan ibiltzeko eta horregatik goizean zein iluntze aldera ikusten da jendea harantz eta honantz.

### San Lorentzo, betikoa

Elgoibarko ibilbiderik estimatuena San Lorentzorainokoa da. Paraje ezin hobea, bide lau aldapa pare bat kenduta, taldean berrikerian egiteko modukoa, gorputza gehiegi estutu gabe. Edozein adineko jendea topatu dugu San Lorentzo bidean, baina gehienbat, helduak eta adinekoak. Gehienak egunero joaten dira, hutsik egin gabe, "medikuak esan zidan niri ibiltzeko, bihotzerako ona zela eta" diosku Felixek. Mari Angelesek ere osasun arazoengatik ekin zion pasiatzeko ohiturari, "pare bat buelta

Edozein arrazoi da balekoa orduerdiko edo gehiagoko bueltatxo emateko. Elgoibarren badira hamaika txoko.



■ ■ Pasiarako lau ibilbide ezberdin: San Lorentzo, ezagunena. Andikano aldean egunero ibiltzen da jendea joan-etorrian.



■ ■ Beraseta. Bidea aldapatsuagoa da baina hango panoramak merezi du. Lau-laua nahiago dutenentzat, Mintxeta aproposena.

ematen ditut, goizean lehenengo eta arratsaldean gero, hala ere, beti gustatu izan zait ibiltzea, mendian batez ere”. Gazteak ere ibiltzen dira, batzuk footing-a egiten, bizikletan ere bai...

#### Mintxeta, samurrena

Mintxetako Udal Instalakuntzak dauzkagunetik asko dira zirkuituaren inguruan bueltaka ibiltzen direnak. Bide lau-laua da, aldaparik gabe, edonorentzat aproposa. Batzuren ustez, bueltaka jarduteak errazago aspertzeko arriskua dauka, bidea ez baita inon bukatzen. “Mintxeta eraiki zenean, kirol federatuaz gain, aisialdiko kirola ere erakarri nahi genuen. Haseran ez genuen uste hainbeste oinezko etorriko zenik, baina dudarik ez dago gaur egun pasiarako lekuri popularrenetarikoa dela” adierazi digu Udal Kirol Teknikariak.

#### Beraseta, aldapatsuena

Oinezko pasiararako Berasetako bidea aukeratzeko duen jendeak gainontzekoetan baino gehiago izerdituko duen dudarik ez dago. Luzeraz San Lorenzo baino motzagoa da

Medikuen esanetan ibiltzea da ariketa fisikorik gomendagarriena. Gaixotasunak prebenitzeaz gain, bizitza ere luzatzen omen du.

baina Beraseta baserrira iritsi baino lehenagoko aldats gorak ez dira nolana hikoak. Aldapen gogortasunak, ordea, ez dio Manlori adorerik kentzen, “aspalditik hasitako ohiturari ekiten diot goizero, astegunetan. Nere erritmora joaten naiz, eta behin iristen zarenean, han goitik Elgoibar guztia ikustea bezalakorik ez dago”. Mendizaleenak dira agian Berasetan aldean ibiltzen direnak eta behin han egonda, animosoenak, Berasetan atzean laga eta Karakateraino igotzen dira.

#### Andikano, beste proposamen bat

Dudarik ez dago, nork bere etxetik gertuen dagoen lekua aukeratzeko duela edota edozein arrazoi egon daitekeela toki bat edo bestea aukeratzeko. Andikanorainoko pasiarra egitea beste proposamen bat izan daiteke, San Lorentzoko bidearen antzera, lau eta polita biak ere. Argi dago pasiarra irteteko edozein leku, edozein ordu eta edozein arrazoi dela balekoa. Oinetako aproposak jarri eta hona hemen udaberriko eguzkia lagun, gure herriko inguruez gozatzeko aukera.

## PASIIARAREN ONURAK

Beti esan ohi da, egunean ordu erdi edo ordubete oinez ibiltzea osasunarentzat ona dela. Denborak arrazoi eman die ohituraz ariketa fisikoren bat egiten dutenek bizimodu geldia dutenek baino urte gehiago hartzen dituztela baieztatzen zutenei. Hara hona ariketa fisikoa egiteak prebenitzen dituen zenbait gaisotasun: bihotzeko gaitza, tentsio altua, loditasuna, kaltzio falta hezurretan... Gaitz hauez gain, depresioa eta antsietatea ere gutxitzen du eta loa eta autoestima hobetzen ditu, bizi kalitatea azken finean. Ariketa fisikorik gomendagarriena medikuen esanetan, ibiltzea da. Berau da ariketarik oinarritzekoena, molestiarik sortzen ez duena, lesio arrisku eskasa duena eta erraz eta gastu gutxirekin egin daitekeena. Adituen esanetan, oinezkoen erritmo egokia izerdia eragiten baina lagun bat alboan izanez gero harekin berba egiten uzten duena da. Nekea sentitu behar da, baina ez da komeni leher eginda bukatzea. Jantzerari dagokionean, arropa eta oinetako erosoak jantzi behar izaten dira inolako trabarik ez sortzeko eta izerdia pasatzen lagatzeko.



## Zer egin ohi duzu bazkal ondoren?




**MERTXE AIZPURI**  
62 urte, etxekoandrea

Ni oin makalian nao ziatikia pasau dot eta, baina orain arte bazkarixa eta jasotzia amaitxu eta San Lorenzo aldera juten nitzan pasiatzera lagunekin.



**BEATRIZ BASTERRETXEA**  
48 urte, dendaria

Ahal badot, butakan etzan eta telebisio aurrian hamar minutuko siestia itxeko aprobetxatzen dot. Pasiatzeko denborarik ez dakat.



**BLAS MARTINEZ**  
43 urte, langabetua

Kafe bat hartzera ateratzen naiz eta lagunekin partidatxo bat jokatzera, emaztearekin norabaitera joan behar naizenean ezik.



**JAVIER HERNANDO**  
29 urte, ekonomilaria

Partikularrak ematen ditut eta klaseak prestatzen egoten naiz astegunetan. Larunbatean, aldiz, atsedeen piska bat hartu eta footing-a egitera joaten naiz.



**SILVIA CASTELO**  
22 urte, ikaslea

Ez dut ezertarako denborarik izaten, josten ikastera joaten naiz eta. Astebukaeratan, lagunekin ateratzen naiz, "de mar-txa".



**ANTXON ARRIBILLAGA**  
43 urte, tabernaria

Segun eta egualdixa nola daon. Ona badao eta astixa badakat deportia eitxen dot eta gogo gutxi dakate-nian deskantsau edo zeozer irakurri.

*gure hitza*  
**ELGOIBAR**





# Udal hauteskundeetarako **BARREN KINIELA**

## Zenbat zinegotzi lortuko ditu alderdi bakoitzak?



GAUR EGUN MAIATZAK 28  
8 .....



GAUR EGUN MAIATZAK 28  
2/2 .....




GAUR EGUN MAIATZAK 28  
4 .....



GAUR EGUN MAIATZAK 28  
0 .....



GAUR EGUN MAIATZAK 28  
2 .....



GAUR EGUN MAIATZAK 28  
0 .....

Zein izango da Elgoibarko Alkate?

.....


Izen-abizenak ..... Tel.....



Erantzunak maiatzaren 26a baino lehen iritsi behar dira **BARRE**Nera.  
Ez da fotokopiarik onartuko. Asmatzen duzuenon artean

**TXANKAKUA**ko dendetan gastatzeko

**25.000** pta  
zozketatuko dira



BARREN astekaria. Nafarroa Plaza 2. 20870 ELGOIBAR. Tel 74 41 12

## ■ Musika Bandak Tuteran joko du igandean

Igande honetan, hilak 21, Udala Musika Bandak kontzertua eskainiko du Tuteran (Nafarroa) Nafarroa Oinez 95'ekitaldian barruan. Kalejiraren ostean kontzertua emango dute Iruñako berdinekin batera, diska grabatu zuten gaiteroekin, alegia. Kontzertuaren ostean lagunarteko bazkaria izango dute Nafarroa Oinez antolatzen dabilzanekin.

## ■ EAren hitzaldia

Datorren ostegunean, hilak 25, Elgoibarko EAK antolatuta, Inaxio Oliveri Jaurilaritzako Hezkuntza sailburua, Angel Larrañaga, Jose Julian Irizar, Batzar Nagusietarako hautagaia eta Ales Arrieta, Udaletxerako alkategaia EAren programari buruz berbetan arituko dira Kultur Etxean. Mitina arratsaldeko 8,30etan hasiko da hitzaldi gelan.

## ■ Udako kanpaldiak

Deba Beheko astialdi taldeek, *Dotoreak*, *Goruntz*, Elgoibarko *Zuhaitz*, *Gongonpailak* eta *Beti-Prest*, 12 eta 17 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako bi kanpaldi antolatu dituzte udara begira. Lehena 12 eta 14 urte bitarteko haurrentzat izango da, abuztuaren lehen hamabostaldian Burgosko Manzanedillo herrian. Bigarrena uztailearen 29tik abuztuaren 12ra bitartean izango da eta 15 eta 17 bitartekoei zuzendua. Kanpaldi honetan Euskaditik hasita etapa ezberdinak egingo dira, Seguratik hasi eta Burgoseko Herran herrian bukatzeko. Izena emateko ekainaren 4a baino lehen 74 12 61 zenbakira deitu, astelehenetik ostegunera bitartean, gaueko 9etatik 10etara, Josebagatik galdetuz.

## Hirigintzan azken lau urteotan egin dena fraude bat izan da HBrentzat

Joan den ostiralean HBk prentsaurrekoan esan zuenez, "azken lau urteotan hirigintza sailean egin dena fraude bat izan da". Etxebizitzen gaia aipatzean, Agirrereren hitzetan, ekimen pribatuari %90 eskaintzen omen zaio eta babes ofizialeko etxebizitzei %10, etxebizitza sozialak ahaztuz. Bigarrenik, Udaletxeak jasan behar dituen hirigintza karga astunak salatu zituzten, "guztiak PNVk konstruktoreekin sinatu dituzten paktuak direla eta, besteak beste, Leku Eder eta Santa Klarako etxeak eraikitzeko". Maltzagako bidearen proiektuak, "beharren erdia baino ez du betetzen, Txankakuara arte luzatu behar da". Errekaren mozketaren proiektuak HBren ustez, ez du seguritate garantiarik, "gaizki dauden tramoak konpondu behar

dira beti ere, errekarren ibilbide naturala mantenduz". San Migel errekastoko obren inguruan, "Zeleta baserritik hasi behar dira obrak, bestela Santa Klara auzoak arriskuan jarraituko du". Obren adjudikazioaren inguruan fraude hitza erabili zuen, berriz ere, HBk. "Udaletxeari zenbait faboritsimo ikusten zaio, batez ere, Construcciones Ulacia eta Brues enpresekiko. Herriko Antzokiaren obrak Ulaziari eman zitzaion ilegalki, plikak ez baitziren ireki idazkariaren aurrean". Bestalde, Herri Batasunak ingurugiro sekzioa sortu eta tekniko bat jartzearen beharra azaldu zuen eta baserritarren gaia era garbiz egin dadila eskatu, "Baserritarren zinegotzia den Irustak ez du informerik ematen, ez da komisiotara joaten".



**Herri Batasunak antolatuta**, "Euskal Herria bizi dadin, Udala abertzale eta ezkerzaleak behar ditugu" lemapean, bizikleta martxa igaro zen Elgoibartik astelehenean arratsaldeko 7,15 aldera. Altzolan egin ziotzaion ongi etorriaren ostean Elgoibarrera iritsi ziren, Plaza Handitik beherantz, kale buelta egiteko. Elgoibartik igarotzean 40 bat lagun bildu zituen martxak. Bestalde, igande honetan, hilak 21, HBk manifestazioa burutuko du Donostian "Euskal Herria askatu" lemapean. Goizeko 11,30etan hasiko da eta Elgoibartik autobusak irtengo dira hara joateko. Plaza Handian goizeko 10etan izango da irteera. Izena emateko Txuri-Beltz edo Oiz-Mendi tabernetara zuzendu.

## Alkategai bilbotarra aurkeztu du Alderdi Popularrak

Partidu Popularrak Juan Carlos Abian Moreno, 28 urteko bilbotarra, aurkeztu du datozen udal hauteskundeetarako alkategai modura. Juan Carlos Abianek DVn argitaratutako elkarrizketan esaten zuenaren arabera, "alderdi popularrak bi zinegotzi lor ditzake maiatzaren 28an, aurreko hauteskunde autonomikoetan lortutakoez gain beste 60 botu gehiago eskuratuko bagenitu". PPren programa hiru arlotan oinarritzen da: lanaren sustapena, drogomenpekotasunen prebentzioa, lur industrialaren liberalizazioa eta alojerako etxebizitzak bultzatu ekimen pribatuarekin hitzarmenak lortuz. PPren zerrendako bigarren eta hirugarren postuan daude Miguel Solans eta Nicolas Ivan Sanchez, kanpotarrak bi hauek ere.



## ■ Joxin Arregi Eibarko San Andres elizako parroko izendatu dute

Joxin Arregi apaiza Eibarko San Andres elizako parroko izendatu berri dute. Joxin Azpeitian jaio zen orain dela 37 urte. 9 urte daramatza apaiz bezala eta horietatik zenbait Errenderin egin eta gero Elgoibarrera etorri zen. Hemen 2 urte eta lau hilabete eman ditu Parrokiako lanez gain zenbait auzoetako eukaristiaz ere arduratuz. Zortetik onena opa diogu bere izendapen berrian.

## III. Sketch Lehiaketan

Elgoibarko San Bartolome Ikastolak hirugarren saria lortu du. Euskadiko Kutxak antolatuta, guztira 90 bideok hartu du parte aurtengo edizioan.

Ikastolak 600.000 pezeta jaso ditu eta kopuru horrekin ekainaren azken astean bidaia bat egingo dute Port Aventura eta Piriniotara. 7garren mailako 18 ikaslek hartu dute parte bideo sarituan Jabier Larrañaga eta

Sebas Larrañaga irakasleen laguntzaz. Sari banaketa maiatzaren 7an egin zen Iruñako Gayarre Antzokian.



## Dia Das Letras Galegas

ospatu zen joan den astebukaeran Galiza Etxekoek antolatuta. Urasandiko Herri Eskolaren jolaslekuan kokatu zen jaigunea, gastronomia, folklorea, dantzak, musika eta jai giro alaia nagusi izan zirelarik. Carballinoko "A Morena" pulpeirakoek, argazkian, "pulpo a feira" mordoak saldu zuten jaki goxo hau dastatzeko asmoz hurreratu zirenen artean.

Constan Nuñez:

## "Praktikak eta belarrondokoek egiten dute kazetaria"

Hogeita hamabi urteko elgoibartar hau, Sorian jaio arren, txiki txikitatik Elgoibarren bizi da. Bizitza kazetaritza munduan murgildurik du, bere lanbide delarik. Alde batetik,

Elgoibar eta Mendaroko "Correo"ko berriemailea dugu. Bestetik, IMHko kolaboratzaile ere bada. Euskara ikasten ibilia den arren, oraindik ere euskararekiko erronka bizi bizian dauka.

- Zenbat urte kazetaritzan?

- Fakultatean ikasten hasi nintzenetik, orain dela dexente urte. Hamar-hamabi urte inguru bai. Haseran "La voz de Euskadi" egunkarian, eta ondoren "Correo"n.

- Zergatik kazetaritza munduan?

- Bueno, gustuko nuelako esan beharko nuke, baina badakizu, gazte zarenean, bide bat hartu behar duzu eta egokiena hauxe iruditu zitzaidanez, hura hartu nuen eta kitto.

- Elgoibarko kazetari-tzan lehen litzentziatua omen zara, egia al da?

- Ez dut uste egia denik, beharbada, Euskal Unibertsitatean kazetaritzan lehen aldiz litzentziatu zen elgoibartarra izan naiteke, baina ez nago ziur.

- Zer lan egiten duzu?

- Normalean herriko kronika egiten dut. Elgoibar eta Mendaroko kronikak baina Gipuzkoa mailako erreportaiak ere egin izan ditut. Kronikatik kanpo, herriak sortzen dituen albisteak ere ematen ditut. Elgoibarrek sortzen duenaz



"Kazetariaren lana transmititzea da baina gaur egunean asko desmadratu da".

arduratzen naiz.

- IMHn kolaboratzaile zara.

- Bai, berriak kanporatzeaz arduratzen naiz, egunkari guztietara bidaltzeaz eta barruko informazioaz ere bai. Bertako kolaboratzailea naiz.

- Berri asko ematen al du Elgoibarrek?

- Bueno, aldika goaz; orain asko hauteskundeak direla eta. Beste sasoi batzutan, uztaile edo abuztu haseran gu-

txiago. Berri gehien ematen duen iturria Udaltxea da eta orain arte dispo-nibilitate gutxi ikusi dut; orain aldatuko dutela esaten dute. Baina bueno, orokorrean, Elgoibarrek dexente berri ematen duela esan genezake.

- Kazetari izatea ez omen da hain zaila, baina kazetari on bat izatea oso zaila al da?

- Bai, hala da, baina ez bakarrik honetan, edozein lanbidetan. Kazetaritzan, nor bere lana

transmititzea da; hori asko desmadratu da, askotan kazetariak protagonismo handia hartzen du. Halere, transmititze horretan objetibitatea oso zaila da, bakoitzak bere iritzia baitu. Nahiko zaila da objetibo izatea.

- Kazetaritza jendearen aurreko lana denez, ez al da gogorra?

- Bai, zure lana denen bistan dago eta jendeak ez du zure informazioa ongi analizatzen. Adibidez, informazio askoren egilea zu zeu zarela uste du eta zu transmititzaile soil bat besterik ez zara. Gero, izugarriak entzun behar izan ditugu.

- Kazetaria egin ala jaio?

- Dударik gabe, egin. Praktikak eta belarrondokoak jasotzeak egiten du kazetaria. Esperientziak egiten du kazetaria, gero eta konfidantza gehiago hartuz.

- Beraz, ez da txikitatik izan duzun bokazioa?

- Ez, beno badakizu, txikitan beste zerbait izan nahi duzu. Nik neuk suhiltzailea edo abiadorea izan nahi nuela esaten nuen.

JOSEBA GOROSABEL

## Tokiak ezagutzeko aukera ezberdinak

**A**spaldian dexente irteera antolatzen ditu Zaharren Biltokiak. Oraingo honetan argazkian ikus dezakegun herria aukeratu dute, Donibane Lohitzune. Maiatzaren 31n izango da, asteazkena, goizeko 8,30etan abiatuz Foruen Enparantzatik. Irunen gosaria izango da. Arratsaldeko 2etan bazkaria eta ondoren Donibanera irteera, bertan bueltatxo bat eman asmoz. Arratsaldeko 7etan Mamutera bisitaldi bat egingo dute eta 8,30ak inguruan etxera buelta. Bidaia zenbatekoa 1.000 pezetakoa da eta nahi duenak Zaharren Biltokian eman dezake izena.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak *Konkistatzaileen Ibildea* deituriko programa antolatu du. Bost eguneko iraupena duen bidaia da, lau izarreko hotelean eta pentsio osoko errejimenean. Honela, Salamanca, Cáceres, Plasencia, Trujillo, Guadalupe, Almendralejo, Mérida, Alcántara, Lagartera, Oropesa eta Talavera de la Reina hi-



Maiatzaren 31n Donibane Lohitzunera irteera bat egingo da.

riak bisitatuko dira. Ibilbidea luxuzko autobusean egingo da, otordu guztiak jantzetan eta bidaian zehar bidaiari bakoitzak oroigarri bat jasoko du. Parte hartzeko baldintzak honakoak dira: 65 urte beteta izatea, pentsioduna izatea, Gipuzkoan bizitzea, buruko gaisotasunik ez izatea eta nor bere kabuz

aritzeko gai izatea. Bidaia maiatzaren 15etik ekainaren 15era bitartean egingo da txanda ezberdinetan. Prezioari dagokionean, berriz, hilero 37.000 pezeta baino gehiagoko diru sarrera duenak 24.850 pta ordaidu beharko ditu eta 37.000 pta baino gutxiago jasotzen duenak 14.850 pezeta.

**8.500  
PEZETAN**

## ENRIKE EGUREN

### "80 pasa soinu-jolekin jo izan dot nik saxofoia"

68 urte ditu eta hamairu urte zituenetik dago musika munduan sartuta. Solfeoa ikasi zuen lehenik, klarineta gero, eta gaur egun saxofoia jotzen du Gelatxo taldean. Erromeriaz erromeria ibili den edonork ezagutuko ditu Enrike Eguren eta bere saxofoia. Berak aitortu digunez, 80 soinu-jole baino gehiagorekin jo izan du, Euskal herrian ezezik baita Burgos aldean ere.

- Zein da zure lehen oroitzapena musikarekiko?

- 13 urte nakanian etorri zan Elgoibarrera Gonzalez Bastida direktoria. Harek esan zaban musikia ikastera juten ez zanak pezeta bat pagatu bihar zabala. Nik dirurik ez nakan eta ezin ezer pagau, horregatik nahixao izan naban musikia ikastera jutia, haura debalde zan eta.

- Eta hark irakatsi zizun solfeoa.  
- Bai. Sei hilabetera klarinetia eman zian. Berandutxuo rekintua hasi nitzan jotzen, klarinetia modukua baina txikixaua. Segiduan hasi nitzan Musika Bandan jotzen eta han egon nitzan sei urtian, Jangorango etorri jatan arte.

- Zer geratu zen orduan?

- Berak esan zian ia nahi naban berakin ibiltzia erromerixetan jotzen, herriz herri. *Polo Norte* deitzen zan grupua. Denboriakin klarinetia laga eta saxofoiakin hasi nitzan.

- Zergatik hori?



- Epoka hartan ez zauan altabozik eta potentzia haundixa zakan instrumentua bihar zan. Neuk ere saxofoia nakan eta lortzen naban saxofoia fuerte jotzia, danian entzuteko moduan. Nere lehenengo saxofoia 4.400 pezeta kostau jatan eta pagatzeko tailarrian dirua aurreratze-ko eskatu naban. Holaxe, hamabostian behin 75 pezeta pagatzen nizkion, soldatetik deskontatzen zian.

- Gero makina bat soinu-jole-ekin ibili izan zara, ez?

- Bai, 80 pasa. Saxofonista gutxi zauan orduan eta neu ezaguna nitzan.

- Madrilera juteko tentaziorik?

- Bai, soldadutzia itxen nauala Iruñan behin zezen plazan jo naban eta Madrideko bat etorri jatan kontratuakin. Nahi banaban Bonbero Torero deitzen dian hoiekin lan itxeko aukeria nakan. Ondo pagatzen zien, 150.000 pezeta epoka hartan baina nik Elgoibarren nakan lana, familia eta kuadrilia, eta, erromerixetan jotzeko kontrata asko ere bai, eta ezetz esan naban.

- Elgoibarren erromeria asko egiten al ziren?

- Oin baino askoz gehixao!

“ Akordatzen naiz zela Plaza Txikixan lau grupo diferente egoten ginan batera jotzen.

”



Akordatzen naiz zela Plaza Txikixan igual lau grupo diferente egoten ginan batera jotzen, bakoitza toki batian. Jendiak nahi zaban grupuakin itxen zaban dantza eta grupoko kobradoriak, tiketa ipini eta pezetia kobratzen ziu mutileri. Beste grupo batekin dantza in ezker berriz ere pagau bihar zan.

- Zenbait tokitan pekatua omen zen 'agarraoa' dantzatzea.

- Bai, askotan. Ataunen parrokuak ez zaban lagatzen agarraorik dantza itxen pekatua zalako. Herriko jendiak huelgia in zaban kontra itxeko eta Lazkaora juten zian mezia entzuterara.

- Horrenbeste ibili izan denak izango du anekdotarik.

- Ask, asko! Behin Nafarruako herri batera jun bihar nitzan jotzera. Trena hartu naban eta gero autobusa edo hartu bihar tokira ailegatzeko. Baina bertako soinu-joliak esan zian bizikletan jungo ginala, beste batek kamioian eramango zitzula instrumentuak. Baguazen bizikleta gainian eta halako batian malleta bat ikusi genduan bide bazterrian botata. Begiratu eta nere malletia zan, ere saxofoia, itxuria kamioitik jausi zan. eskerrak kotxerik ez zan pasatu eta gu izan ginan leheneguak ailegatzen!

# Odolezko loturatik gabeko familia berriak



Orain dela urte asko Libournen, Frantzian, Alla medikuak arazo handi batekin egin zuen topo bere ospitalean. Ingresatuak zeuden nagusi askok behar baino denbora gehiago ematen zuten ospitalean, asko bakarrik bizi zirelako, edo ez zeukatelako nora jo edota ez zutelako egoitza batean sartzerik nahi. Horren aurrean, Alla medikuak nagusi horiekin bizitzeko prest zeuden zenbait familia bilatu zituen. Izugarrizko arrakasta izan zuen eta 10 urte geroago Estatu frantsesak egoera legeztatu eta pertsona nagusiak etxeetan jasotzeko legea idatzi zuen.

**P**oliki poliki europako hainbat herrietara hedatu izan da programa hau. Gipuzkoan esperientzia pilotoa 1988an egin zen eta hortik ateratako konklusioen arabera, 1990. urtean ezarri zen ofizialki. Honela, familiak, bikote estableak edota bakarrik bizi diren pertsonak prest agertzen dira beraien etxeetan nagusiak jasotzeko eta beraiekin bizitzeko. Gehienez hiru nagusi har ditzakete, senitartekoak izan gabe, noski. 60 urtetik gorako nagusiek aukera dute, nahi izanez gero, aipatu programetan parte hartzeko. Horretarako, familiak batetik, eta pertsona nagusiak bestetik, beraien herriko Udaletxera jo behar dute izena ematera. Bertan, kasu bakoitza aztertuta eta baldintzak betetzen badituzte programan sartzen dira.

Programa honetan sartzeko eskabidea egiten duten nagusi gehienek arazo konkretuak izaten dituzte, hala nola, gatazka familiarrak, etxebizitzarekin arazoak edota egoitza batean bizitzaren aurka egotea. Bestalde, familia askok, hil zaien pertsona batek uzitako hu-

tsunea bete nahi izaten dute, nahiz eta beste batzuk arrazoi ekonomikoengatik ematen duten izena. Izan ere, Diputazioak 95.000 pezetan ordaintzen dizkio familia bati beraien etxean nagusi bat hartzeagatik eta 115.000 pta pertsona hau ezindua denean. Nagusiak, bere pentsioaren erdia jartzen du eta gainontzekoa Diputazioak ordaintzen du. Honen truke, nagusiak lo-

"Nagusiek egoitzetan bizi nahi ez badute, arazoak badituzte, programa honi esker, familia bat ezagutu eta beraiekin bizitzeko aukera dute."

gela, etxebizitza osoa erabiltzeko eskubidea, garbiketa eta egunero ikusten dituen pertsona batzuren maitasuna jasotzen ditu.

Gaur egun Gipuzkoan 89 nagusi daude programa barruan. Horietatik 19 ezinduak dira, %56 emakumezkoak eta %44 gizonezkoak. Arazorik egon ez dadin kontratu bat sinatzen dute bai familak bai eta pertsona nagusiak ere.

Orain arteko esperientzak erakutsi duenez, programa honek izugarrizko arrakasta izan du, batetik jende askok eman baitu izena eta, bestetik, familien eta etxean jaso dituzten nagusien artean izugarrizko lotura afektiboak sortu baitira, erabateko maitasun lotura sortuz.

## Pentsionisten eskubideak eta betebeharrak

### ESKUBIDEAK

- Pentsioa jasotzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen diren bitartean, hileroko pentsioaren zenbatekoa jasoko du.
  - Urtero pentsio hori birbalorizatuko da.
  - Seguritate Sozialeko zerbitzuak jasotzeko eskubidea, zerbitzu medikoak eta farmazeutikoak.
  - Seguritate Sozialeko bestelako zerbitzuez gozatzea.
- Eskubide guzti hauek bete daitezzen, pentsionistak, nahi duenean Seguritate Sozialaren Institutu Nazionalak dituen edozein egoitzatara jo dezake.
- Bestelakoak:**
- Kobratzen dutenaren zertifikatuak jaso ditzake berak hala nahi badu.
  - Pentsionista izanik bere egoe-

ra adierazi dezake hala behar duenean.

- Aitorpena egiterakoan.

### BETEBEHARRAK

- Pentsionistaren onerako, halako batean, tokatzen zaiona baino gehiago edo gutxiago jasotzen badu, Seguritate Sozialari jakinarazi behar dio. Bai eta bere egoera ekonomikoan edo familiarrean aldaketarik egon bada ere, hala nola, jaiotzaren bat, heriotzak... Guzti honek eragina izan baitezake pentsioaren zenbatekoan. Adibidez, alargun izateagatik pentsioa jasotzen duenak, ezkontzen duenak pentsioa galtzen du. Era berean, jubilazio edo ezintasun kasuren bategatik pentsiorik bajaran jasotzen duena ezkontzen bada, pentsioaren zenbatekoa ugarituko zaio.

- Lanean hasi, beste pentsioaren bat edota errentaren bat jasoz gero, jakinarazi egin behar da. Ekintza horietatik kopuru jakin bat baino gehiago jasotzea inkompatiblea da pentsio minimoarekin.

- Seguritate Sozialak, aurreko urtean izandako diru sarreraren aitorpena eska diezaioke pentsionistari.

- Seguritate Sozialetik pentsioaren bat era desegokian jaso duenak, bere osotasunean itzuli behar du.



**PEDRO EZKURRA**  
72 urte

## MARMITAKOIA

### OSAGAIK (8 pertsonantzat):

1,2 kilo atun, 2 kilo patata, 600 gr. mejiloi, tipula bat, 300 gr. tomate, 200 gr. piper gorri, 200 gr. piper berde eta litro laurden olio.

### PRESTAKETA:

Mejiloiak uretan ondo garbitu ondoren 10 minutuz egosi. Behin egositakoan uretatik atera eta bertan patatak egosten dira. Patatak zurituak eta zatiak egindakoak, apurtuta moduan izan behar dute. Mejiloiak pasapurean birrintu eta patatei gehitzen zaie. Komeni da mejiloiak duten buelta beltza kentzea, bestela patatei gehitzerakoan zatar egiten du.

Olio berotan atuna gainetik egiten da eta hezurra eta azala kendu. Olio berean tomatea, tipula, eta piper berdea eta gorria bigundu arte eduki eta gero, dena pasapuretik pasatu, eta patatei gehitu. Patatak ondo egosita daudenean, zatikatutako atuna gehitu eta sosisuz sosisuz 5 minutuz egosten laga. Kontu handiz gehitu behar da atuna, eta patatak ez birrintzeko adi ibili. 15 minutuz laga. "Plater bakarra egiteko moduko jakia da, beraz, on egin!



## Petra Igartua

### Antxustegi Zeramikak

**● Noiz hasi zinen lanean?**

▶ Bizitza guztia daramat lanean, azulejo munduan 37 urte daramat baina lehenago neskame bezala, Sigman... ibili nintzen.

**● Erretiratzeko asmorik?**

▶ Neri berez etorriko jata erretiratzeko eguna, bitartean ni lanera gustura etortzen naiz.

**● Krisia nabaritzen al duzue?**

▶ Bueno, eduki ditugu gure momentu txarrak, orain negoziario asko zabaldua daukagunez gutxiago nabaritzen da.

**● Gogokoen duzun txokoa?** ▶ Nire denda eta etxea. Nik Elgoibarko herrixari kariñua diot, bertan gustura nago.

**● Donostiarekin konparatuz?**

▶ Donostiara ez nintzateke bizitzera jungo ezergatik ere ez.

**● Gaztetan zer eskatzen zenion bizitzari?**

▶ Lanerako osasuna edukitzea.

**● Eta gaur egun?** ▶ Gauza bera.

**● Gizonen bati bota al diozu "tejoak"?** ▶ Ez, inoiz ere.

**● Erosleak beti al du arrazoa?** ▶ Erosleari ahal den heinean lagundu egin behar jago, dagoena erakutsiaz eta esplikatur.

**● Baina saltzaileak beti garestiena saltzen du.** ▶ Ez, niri ez zait jokabide hori egokiena iruditzen, egia esaten saiatzen naiz.

**● Erosoa ala elegantea?**

▶ Niretzako etxea bizitzeko da, beraz, praktikua eta errosoa.

**● Argia ala iluna?** ▶ Segun eta zer tokitarako.

**● Garestiago dena hobea al da?** ▶ Ezta gutxiagorik ere.

**● Oporretarako toki bat?**

▶ Inora ere ez, ni hemen gustura bizi naiz.

**● Zeure burua definitu:**

▶ Emakume normala naiz, langilea eta lanean disfrutatzen duena.

**● Zoriontsua dirudizu.**

▶ Bai, oso zoriontsua naiz, nik ez daukat batera eta bestera ibiltzeko kapritxorik, neure bizimoduarekin gustura nago.

**● Gazteontzako aholku bat?** ▶ Lanerako prest egotea, lana gustura egitea eta gogor saiatzea, bizitza honetan aurrera egin ahal izateko.

EDURNE KORTA

## ISIDRO DEUNAREN EGUNA

**DOINUA:**

Iparragirre abila dela

Astelehenean baserritarrak  
pozikan egin zuten jai  
nekazarien egun horretan  
jendea zebilen alai  
goizian goiz hasita  
Arratera bisita  
inork ez zuan galdu nahi  
urte guztia pasa ondoren  
eguna noiz helduko zai.

Txakoliñaren dastaketara  
azaldu ziren gehienak  
bertsolari ta soinu joleak  
alai jardun zuten denak  
gero bazkal giroa  
gozoa ta beroa  
azkenean idi demak  
ohitura hauek ditugu hemen  
galdu behar ez direnak.



ZIARDA



Olaso kalea 27 eta 54 A ELGOIBAR 20870  
Tel/Fax: 74 42 84

# Zur ta Lur

••• ALTZARIAK •••

**Dekorazio proiektuak**  
**Altzarigintza integralak**  
**Altzari modernoaren**  
**denda berria**  
**Eskualdeko bakarra bere**  
**sektorean**



## Pedro Mendizabal Alberdi

**HBko alkategaia**



■ **Zeri buruz idatziko zenuke liburu bat?** Elgoibarri edo inguruei buruz, gida antzeko bat edo historia liburu bat.

■ **Estresatua zaudenean zer egiten duzu?**

Kirola egin, mendira jun seguruenez.

■ **Lo erraza ala zaila daukazu?**

Lo hartzea kostatzen zait baina gero ondo egiten dut lo.

■ **Gogora etortzen zaizun zure bizitzako momentu bat?**

Anaiarekin, amaren baserrian, Itziarren, behien bila gindoazela galdu ginenean.

■ **Politika antierotikoa dela diote. Nire ustez gaurrengoko bizitzan daramagun erritmoa da antierotikoa.**

■ **Zer da lehenago, eskubidea ala betebeharra?**

Eskubidea, baina oso zaila egiten zait biak banatzea.

■ **Besteengan onartzen ez duzuna?**

Sinzeritate falta edo koherentzia falta.

■ **Elgoibarko zein txoko erakutsiko zenioke kanpotar bati? Eta zein izkutatuko?**

Plaza Handia. Eta izkutatu, King-Kong-a.

■ **Norekin pasako zenituzke gustura berriketan pare bat ordu? Edozein pertsona atseginekin.**

■ **Balorerik garrantzitsuena?** Norberak pentsatzen eta esaten edo egiten duenaren arteko koherentzia.

■ **Emakumea bazina, zein lanbide izan nahi zenuke?**

Daukadana, irakaslea esate baterako.

■ **Lehen muxua, non eta noiz?** Ikasbidaian uste dut, 16 urtekin edo; matrailean edo ezpainenetan, ez dakit.

■ **Txikitan alkate izan nahi al zenuen?**

Ez, sekula ez.

■ **Emaiguzu arrazoi bat zuri emateko botua.** Euskal Herri euskalduna, ezkertiarra eta bere buruaren jabea nahi duenak HBri eman beharko lioke botua.

**ADINA:** 37

**JAIOTERRIA:** Elgoibar

**IKASKETAK:** Filosofia eta Letrak

**LANBIDEA:** Irakaslea

**EGOERA ZIBILA:** Ezkondua

**ZALETASUN BAT:** Mendira joatea

**LIBURU BAT:** "Colmillo blanco"

**IDAZLE BAT:** Jack London

**PELIKULA BAT:** "Ojos negros"

**MUSIKA MOTA BAT:** Rock lasaia

**KOLORE BAT:** Urdina

**KIROL BAT:** Txirrindularitza

**JANARI BAT:** Txuleta

**JANTZI BAT:** Txandala

**USAIN BAT:** Azahar-a

## GRAFOLOGIA

• Oso gizon disziplinatua da. Heziketa zorrotza jaso duela igartzen da bere grafian. Gainditua dauka, baina heziketa horren arrasto adierazgarriak geratzen zaizkio orandik ere. Langilea eta bizia da. Prozesu mental motela eduki arren, hasten duena amaitzea du gogoko. Parsimoniaz programatzen ditu gauzak, batzuetan gehiegi. Azkar egin beharreko gauzetan "zezenak" harrapa dezake, baina aitzitik, bere egoskortasunak eta moteltasunak ondo egindako eta egituratutako lana garantizatzen dute.

• Ez da dialektikaren aldekoa, hala ere ez da edonork ixilarazten duen horietakoa. Jomuga argirik gabeko bapateko inprobisazioa baino, nahiago



ditu akzio selektibo eta ondo kontzientziatutakoak.

• Esaten duen ia dena sinisten du baina etikoki edo politikoki esatea komeni ez zaion hura

izkutatzeko abildadea dauka. "t" minuskularen lerro transbersalak, inguratzen duen errealitatea menperatzeko nahia adierazten du; bere kontzeptu pertsonal zein idealak azpimarratzeko joera horren proiektzioa da.

- Gainontzekoen ipar eta gidari izatea atsegin zaio.
- Ez dauka buruzagitzarako doirik baina bai, ordea, borondate enerjiko bezain egoskor eta sendoa.

**Iñaki Mendieta** (Grafopsikologoa)

# PROGRAMEN NONDIK NORAKOAK

## KULTURA/KIROLA

	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ondare kulturala eta tradizionala kontserbatu, eta elkarteak, auzoetako eta herriko jaiak bultzatzen jarraitu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mintzetako pista homologatu eta bigarren faseko lur saila egokitu, muskulazio gela handitu, eta Ura-sandin patinatzeoko pista eraiki.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirola euskaraz plangintzarekin jarraitu, gazteriarentzako txapelketak antolatu eta guztientzako kirol iharduerak bultzatu.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gazteriaren gatazkari elkarrizketaren bitartez konponbidea bilatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herriko Antzokiaren erabilpen egokia: Ongarriekin hitzarmena, bestelako erabilpenak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kultur elkarteekin loturak estutu, jaietan partizipazioa bermatu, kirol fundazioa sortu eta Kiroldegia munizipalizatu.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Diru laguntzak emateko batzorde berezi bat sortu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gazteriarentzako alternatiba kirola izatea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gazteak kolektibo ezberdinetan parte hartzera bultzatu.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gazte talde guztien eta Udalaren arteko elkar ulermena lortzeko bideak urratu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udal ekipamenduen gestioan hiritarren partaidetza bultzatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udaletxeko Informazio Boletina sortu (elebiduna).</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurrekontuan beharrezko diru partida ezarri kultura batzordearentzat.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Edadetuentzako aisialdiko iharduerak eta kultur ekintzak bultzatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kolektiboen inizatiba guztiei laguntza eman.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herriko ondarea babestu, kontserbatu eta aberastu. Artxiboak ordenatu eta gaurkotu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirol instalazioen gestioan ekimen pribatua bultzatu instituzioen laguntzaz, zorra eta mantenu kostea ebaluatuz.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirolaren sektorea berpiztu lanpostuak sortu ahal izateko eta era berean, gazteentzako ihesbide izan dadin.</li> </ul>

## HAZIENDA

	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gastuaren arrazionalizazioa, batez ere gastu arruntena.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Inbertsioen eta zor ratioen arteko oreka.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gestio sakona egin, pezeta bakoitzetik elgoibartarrotzat ahal den gehien ateratzeko.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udaletxearen Finantziatorako Fundoa gehitzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurrekontuetan herritarren partaidetza bultzatu: auzoak, elkarteak...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herriko egoera kontuan izan zerga eta tasei buruz hitzegiterakoan.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udaletxeko diru sarrerak haunditu, industria berra sortu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udaletxeko kontuen kanpo auditoria bat egin.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udaletxearen hornitzaileak 90 egunetan ordaintzea lortu.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalaren zorra gutxitu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Korrespontsabilitate zerga sistema mantendu, sarreraren eta eman beharreko zerbitzuen arteko oreka sortuz.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalaren konpetentzien araberako finantzazio egokia lortu.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udal gestioaren transparentzia.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Enplegua sortzen duten enpresa guztiei erraztasun fiskalak eman.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udal zergen berrikusketa eta balizko jeitsiera.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekonomi ihardueren zerga berritu, ahalmen ekonomikoaren printzipio konstituzionalarekin konpatiblea izan dadin.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gastu eta sarrera publikoen fiskalizazioa, arrazionalizazioa eta austeritatea. Benetako beharren zerrenda egin.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Obren kontratazioa lehiaketa edo enkante bidez egin.</li> </ul>

## MOTZAK

### Buzeo ikastaroa

Urbizi Urazpiko Taldeak izar bateko buzeatzailerako titulua lortzeko ikastaroa antolatu du. Maiatzaren 29an, 30ean eta 31n arratsaldeko 7etatik 9etara bitartean Olaizaga kiroldegian izango dira klase teorikoak, ekainaren 1ean eta 2an klase praktikoak igerilekuan, eta itsasoko praktikak ekainaren 3an eta 4ean edo 5ean eta 6an izango dira. Izena emateko 74 44 15ra goizez edo 74 43 15era arratsaldez deitu. Lehen bait lehen egitea komeni da, gehienez 12rentzako lekua egongo baita. Ikastaroaren zenbatekoa 34.000 ptakoa da. Amaieran jendeak interesik edukiko balu, beste ikastaro bat antolatuko litzateke Bergaran ekainaren 5etik aurrera.

### OHOk bi talde, Gipuzkoa mailako finalean

Alebin nesken kategoriako Ikaslevis taldeak Gipuzkoako Txapelketako finala jokatuko du areto futboleko Xabier Munibe azkoitiarren kontra. Partidua larunbat honetan izango da Donostiako J.A. Gasca kiroldegian goizeko 11etan. Areto futboleko finala jokatuko dute leku berean baina ordu bete lehenago, alebin mutilen mailako Mendaro B taldeak Andoaino Laskorain ikastolakoan aurka. Aipatu behar, elgoibartarrak areto futboleko jokatuko diren lau finalerako bitan egongo direla. Saskibaloian, berriz, Malape taldeak Loiola ikastetxearen aurka jokatuko du Donostiako S. Inazio ikastetxean 12,30etan, alebin neskei dagokion finalerdien partidua.



Angel M. Ibarluzea:

## "Bolatokixan goizaldera arte luzatzen da jai"

■ **San Migeldarrak Gipuzkoako Txapelkun hiru kategoriatan. Suertea, ala...?** - Afiziuua da eta talde bat beti egon izan da. Gustora ibiltzen gera. Aurtengua 26. txapelketa izan da eta San Migelekuak 10 bat txapelketetan hartu degu parte.

■ **Txapela lortzeko estu ibili zintzen, ez?** - Azkenengo tiraldira ailegau nintzan lau txirloko bentajaz. San Pedron hiru txirlo jo nitxun eta bigarrenak, lenengo bi bolatan sei txirlo. Baten aldian nik irabazi nion. Hasieran azkenian baino alde gehixago euki naban.

■ **Aspalditik zabiltza boloetan?** - Etxe aurrirau zukan aitzak bolatokixa eta txikitau hasi nintzan, bolia ere ezin naban hartu; oin semia dabilen bezela. Taldian, oin dala zortzi bat urte hasi nintzan.

■ **Txapelketetatik aparte, bolotan ibiltzen zarete?** - Taldian gaude nak hango edo hemengo festetan, azkenian bolatokixan inguruan jantzen gera, San Lorentzon, San Pedron,... Jaixetan gabaz izaten da eta boluen inguruan goizalderarte egoten da ambiente politxa.

■ **Zer eduki behar du bolari on batek?** - Gustau ein bihar da. Normalian eskuan dao sekretua, eta eskutik botatzera kuan. Zenbat eta gozuaua atera, hobe.

■ **Bolatokitik bola-**



**tokira alde egoten da?** - Bai, batzuetan goitik behera bota bihar da eta beste batzutan, behetik gora. Hortaz aparte, azpijana edo goijana eitxen da boliak gora, behera edo azkarrago hartu deixan. Neri hobeto juten jataz indar piskat bihar dabena. San Lorentzon eta San Roken azkenerako aspertu eitxen naiz, suabe bota bihar da eta. Bolatoki piskat zaila darian, asmatu ezin zabiltzarian... orduan disfruta-tzen dot gehixen.

■ **Hiru txirlo deitzen dena jokatzen da hemen. Arabako era ezagutzen duzu?** - Ezagutu bai, baina ez naiz sekula ibili. Ziharo diferentia da, hiru txirlo erakoa lur gainian izaten da eta bestean, ohol estu baten gainetik botatzen da. Albuak bolia jausteko modukuak dia eta lau txirlo jasotzen dia, hirukia eginez.

■ **Futbolari ala bolo jokalaria?** - Futbola oin lagata dakat. Ez daukat astirik eta belauana ere ez daukat santu-santu. Beti futbolian ibili naiz eta bolak piskat aparte euki ditzut. Baina afizua bixetara.

■ **Zerk poztuko zintuzke gehiago, Haundik liga irabaztea ala S. Migel Euskadiko Txapelkun izatea?** - Bixak hobe.

- Adina: 27
- Gusturen non? San Migelen.
- Zer da zailagoa, golak sartu ala txirloak jo? Golak sartu.
- Beste kirolik? Pilotan aritzen naiz, eskuz eta palan ere bai.

**TIRO RIRO**

San Fermi, 50. 74 13 86

**JATETXEA  
ETA  
TABERNA**

P. Muguruza 8. 74 08 21

**XABIER**  
ILEAPAINDEGIA

*Eskatu  
eguna eta ordua*

San Bartolome 13, Tel. 74 19 97



## MOTZAK

### "Elgoibar Hiriko Saria" Txirrindulari lasterketa

Txirrindularien Lagun Taldeak antolatuta, "Elgoibar Hiriko Saria" lasterketa korrituko dute igandean 1go eta 2. urteko jubenilek. Goizeko 10etan irtengo dira Plazatik 90 kilometroko ibilbidea burutzeko. Deba, Arroa, Zestua, Azpeitia eta Itziarko gaina birritan igaro beharko dute, bukaera Mintxetan izango delarik eguerdiko 12,40ak inguruan. Bestetik, joan den astean Legorretan korritu zen Gipuzkoako Txapelketan Lagun Taldeko Etxaniz txirrindularia Gipuzkoako txapeldun orde geratu zen. Etxaniz eta beste bat ihesaldi baten ostean batera iritsi ziren helmugara, Lagun Taldeko txirrindularia sprint-ean bigarren sartu zelarik.

### Plater tiraketa

Larunbat honetan, hilak 20, La Union elkarteak antolatutako plater tiraketa txapelketaren azken saioa izango da San Pedroko tiro zelaian. Tiraketaren ostean irabazlearen izena jakin ondoren, sari banaketa ekitaldiari ekingo zaio.

## Hiru garaipen Elgoibarko atletismoarentzat



**P**ilar Arriola, Ana Etxaniz eta Oihana Chico dira argazkikoak, ezkerretik eskumara; hil honen 11n Zumarragako herri krosean lehenak geratu ziren bakoitza bere kategorian. Pilar Arriola seniorretan 8.000 metrotako lasterketan, Ana Etxaniz 800 metrotan benjaminetan irabazle izan zen mutilen aurretik iritsi zelarik eta Oihana Chico infantiletan garaile izan zen 2.000

metrotako distantzian. Garaipen honez gain, Pilar Arriolak Aretxabaletan beste larreketa bat irabazi zuen aurreko astean. Beste elgoibartar batzuk ere hartu zuten parte urtero antolatzen den Zumarragako krosean. Pili De la Lama bigarren izan zen seniorretan eta Julian Garcia laugarren beteranoetan. Ana Etxanizek eta Oihana Chicok hurrengo lasterketa Azkoitian korrituko dute. Zorionak denei!



**Salvador Celaya**  
ITURGINTZA  
BILTEGI ETA BAINUGINTZA  
BEROGAILU ELEKTRIKO ETA GASDUNAK  
Errosario 22. Tel: 74 04 94



San Frantzisko 3 Tel: 74 02 30

**ZALDUA**  
ITURGINTZA  
GAS ETA BEROGAILU  
INSTALAKUNTZAK  
Urasandi 26. Tel: 74 05 30



DEBA KALEA 12  
TEL.: 74 42 23  
20870 ELGOIBAR  
**ERREFORMAK**  
**FATXADAK ETA TEILATUAK**  
**OBRAK OROKORREAN**



**ILEAPAINDEGIA**  
74 00 69  
San Frantzisko, 40 3 - B

## Musikeskolak lau kontzertu emango ditu bi astetan



AZKUE

Inazio Bereziartua Musikeskolak lau kontzertu emango ditu bi asteren buruan ikasturte amaiera modura. Ostegunean izan zen lehena, gaur hilak 19, bigarrena eta hirugarrena eta laugarrena datorren ostegunean eta ostiralean izango dira, hilak 25 eta 26, guztiak Herriko Antzokian arratsaldeko 7,30etan. Geratzen diren kontzertuetan bakarka eta binaka joko dituzte instrumentu ezberdinak aurtengo ikasturtea burutu duten ikasleek. Haez gain

Inazio Bereziartua musikeskolako banda, abesbatza, orkestra, akordeoi taldea, txistulariak, dantzariak eta soka taldea ere arituko dira. Aurten Inazio Bereziartuak 10. urteurrena ospatzen du, eta hori dela eta, ekitaldi bereziak antolatzen ari da. Horien artean, datorren hilaren 10ean, euskal dantza saioa izango da Plaza Handian. Gaurregun 510 ikasle eta 26 irakasle eta monitore ditu ikastetxe honek eta 14 instrumentu eta zazpi gai ezberdin irakasten dira.

## Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako sailkatuak

Gipuzkoako Bertsolari Federaziotik bidalitako informazioaren arabera, honako hauek sailkatu dira Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren bigarren faserako: Aitor Mendiluze (404,5 puntu) Elgoibarko saiotik, Alfonso Jimenez (397,5) Mutrikuko saiotik, Andoni Larrañaga (396) Urrietako saiotik, Maialen Lujanbio (392,5) Billabonako saiotik, Jexux M. Irazu (374,5) Urretxukotik eta Juan Mari Narbaiza (372,5) Oñatin izandako saiotik.

## Pintura erakusketa

Larunbat honetatik hasita ekainaren 11ra bitartean bi margolariren lanak ikusgai egongo dira Kultur Etxeko erakusgelan. Jose Ignacio Treku debarrak eta Roberto Garcia elgoibartarrak margotutako pinturak ikusteko ordutegia ohizkoa izango da. Astegunetan arratsaldeko 7,30etatik 9,30ak arte eta jaiegunetan eguerdiko 12etatik 2etara bitartean.



**YOSUTHERMIK**en guk fabrikatzen ditugu leihoak, kalitate goreneko materialez eta langile espezializatuekin.



**Santa Ana 18, behea Tel-Fax: 74 43 83**

*Buzenbide berria*

## Bost kontzertu izan dira astebukaeran Gazte Asanbladak antolatuta

**G**aztetxea bota zutenetik lau urte betetzen zirela eta horren aurkako salaketa egiteko, joan den astean hainbat ekintza antolatu zituen Gazte Asanbadak. Horien artean bada bat bereziki nabarmentzen dena, Elgoibarren egiten den lehen aldia izategatik. Izan ere, larunbat gauez, herriko lau tabernatan beste hainbeste kontzertu izan ziren. Morau, Hiltzorian, Marruma eta Storbais musika taldeak entzuteko aukera izan zen. Horrezaz gain, ostiralean, 6Nemen9k kontzertua eskaini zuen Malapen. Zapatua izan zen egun nagusia ekintza gehien biltzen baitziren. Besteak beste, errepresioaren aurkako erakusketa egin zen Maalan, trikitilari, txalapartari eta malabarrekin eta 7etan manifestazioa. Gazte



6NEMEN9 ostiraleko kontzertuan

Asanbladak ekintza guztiak positiboki baloratu ditu eta, "eskerrak eman nahi dizkiegu tabernariei, musika taldeei, malabarrei bai eta parte hartu zuten guzteei ere. Bide

batez, Gaztetxearen aldeko borrokan aktiboki parte har dezatela esan nahi diegu, oso garrantzitsua baita gure etorkizunerako Gaztetxe bat edukitzea".

# EZKERRAREN BOTUA

*Emaitza zure konfidantza  
sindikalistaz eta  
independiente langileez  
osaturako kandidaturari!*



izquierda unida  
ezker batua



## Salerosketak

KAMINUKO BIZIKLETA BAT salduko nuke. Egoera onean dago.  
☎ 74 28 56 Gaizka  
Gauzez deitu

Bigarren eskuko MOTO-AITZURRA (moto-azada) BAT EROSIKO NUKE.  
☎ 74 22 89

CD ROM IRAKURLEA saltzen dut. Estreinatuta gabe. SCSI. Hiru abiadura. CD arruntak ere irakurtzen ditu. (SONY CDU 55 S)  
☎ 74 15 69

NINTENDO JOKOAK saltzen ditut: "Pro Wrestling serie deportes" eta "KO Boxing".  
☎ 74 21 48 Xabier

3,5 pulgadako disketeradun ORDENAGAILU BAT erosiko nuke.  
☎ 74 07 30 Unai

TAPIFLEX KOLTZOIA ETA BURUKOA saltzen ditut, 1,50 x 1,90 neurrikoak eta oso egoera onean. Dena 20.000 pta.  
☎ 74 03 69 Kristina

ERREPIDE BIZIKLETA BAT saldu nahi dut. "Contini" kuadroa eta "Simano" tresnak ditu. Prezio ona.  
☎ 74 00 67 Martin

## Bestelakoak

Ostiralean ATERKI BAT galdu nuen Polikiroldegia ondoan. Aterkia urdina da eta lorak ditu. Topatzen duenak Urasandi, 26-3Cra ekar dezala mesedez.

KARPETA BAT galdu dut Muebles Antoneko espaloian. Aurkitzen duenak dei dezala.  
☎ 74 08 67 Amets

## Etxebizitzak

APARTAMENTSU BAT alokatzen dut Marbellan udako hilabeteetan eta urte osoan zehar ere. Hondartzaren ondoan. Urbanizazio pribatua pisizekin.  
☎ 10 36 55

ETXEBIZITZA BAT saltzen dut Urasandi auzoan, behekaldean. 4 gela, 2 bainu, sukaldia, sala eta trasteroa. 100 metro karratu. Erreformak eginda..  
☎ 74 15 69

ETXE BAT daukat alokatzeko. Guztiz jantzita. Hiru gela, jangela, sukaldia eta igogailua.  
☎ 74 37 41

PISU BAT erosiko nuke.  
☎ 74 08 20  
Gauzez deitu

## Garajeak

GARAJE BAT dut alokatzeko pista beltzaren azpian, Institutu parean. Marraduna.  
☎ 74 39 19

GARAJE BAT saltzen dut ANAYAK edifizioan. 15m<sup>2</sup> eta bi planta.  
☎ 74 25 01 / 10 82 43

GARAJE itxi bat saltzen dut Santa Ana 46 zenbakian  
☎ 74 13 67

## Lana

ETXEKO LANAK egiteko prest nago. Egun osoan edo orduka. Gauzez PERTSONA NAGUSIAK zainduko nituzke.  
☎ 75 62 57

Mutil gazte amerikarra INGELESEKO KLASEAK emateko prest dago. Mendaroen eta baita interesatuen etxeetan ere.  
☎ 75 62 13 Alex

ENPRESARIALESETAN DIPLOMATUA ofizina lanak edo beste edozein lan egiteko prest dago.  
☎ 74 39 89 Mari Karmen

## Agurrak

ENARA GOROSTIZARI ZORION bero-bero bat bere adiskideen partez. Eta oso ondo pasa dezala maiatzaren 23a.

Maiatzaren 21ean 10 urte beteko dituen JUDITH ZABALARI ZORIONAK bbere adiskideen partez. Ondo pasa maspasa.

7 urte bete berri dituzten EIDER PEREZ eta AINHOA MENDIBILI ZORIONAK!

Gaur 3 urte betetzen dituen IANIRE ROVIRARI ZORIONAK bere lehengusu Ion eta Anderren partez.

Atzo 8 urte bete zituen JON SANCHEZi ZORIONAK bere aita, ama eta anaiaren partez.

Maiatzaren 20an 17 urte beteko dituen Olatz Albarrani zorionak bere familiaren partez eta batez ere bere ahizpa Mirenen partez. ZORIONAK OLATZ!

Maiatzaren 16an 42 urte bete zituen ANJEL ARENALi zorionak eskaintzen dizkio bere familiak eta batez ere bere alaba Maitek. ZORIONAK AITA!



# Erantzunkizuna

## MITIN HITZALDIA

- Maiatzak 25
- 8,30etan
- Kultur Etxean

### Hizlariak:

- ALES ARRIETA
- ANJEL LARRANAGA
- INAXIO OLIVERI
- JOSE JULIAN IRIZAR

## 19 OSTIRALA

### 19,30 MUSIKESKOLAKO KURTSO BUKAERAKO KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

### 22,15 ZINEA

"Leyendas de pasión"

## 20 LARUNBATA

### 10,00 "ELGOIBARKO SARIA" TXIRRINDULARI LASTERKETA

✓ Irteera Plaza Handian  
Helmuga Mintxetan 12,40ak aldera.  
Antolatzailea: Elgoibarko Lagun  
Taldea

### 12,00 PINTURA ERAKUSKETA

**Egileak:** Roberto Garcia eta J.M.  
Treku  
✓ Kultur Etxean  
Ekainaren 11ra arte

### 15,00 TIRO TXAPELKETA

✓ San Pedroko tiro zelaian  
Antolatzailea: La Union

### 19,30-22,15 ZINEA

"Leyendas de pasión"

## 21 IGANDEA

### 16,30 ZINEA

"Un muchacho llamado Norte"

### 19,30-22,15 ZINEA

"Leyendas de pasión"

## 22 ASTELEHENA

### 22,15 ZINEA

"Leyendas de pasión"

## ASTEARTEA

### 22,15 ZINEA

"Un muchacho llamado Norte"  
(Ikuslearen eguna)

## 24 ASTEAZKENA

### 20,00 HITZALDIA

**Hizlariak:** J.M. Encio arkitektoa eta  
J.M. Zunzunegi Donostiako Arte  
Sakroko batzordeko kidea.  
Gaia: Parrokiako obrak  
✓ Herriko Antzokian

## 25 OSTEGUNA

### 19,30 MUSIKESKOLAKO KURTSO BUKAERAKO KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

Antolatzailea: Inazio Bereziartua  
Musikeskola

### 20,30 EAren HITZALDI-MITINA

**Hizlariak:** Ales Arrieta, Iñaxio  
Oliveri, Angel Larrañaga eta J.J. Irizar  
✓ Kultur Etxean

## 26 OSTIRALA

### 19,30 MUSIKESKOLAKO KURTSO BUKAERA KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian  
Antolatzailea: I. B. Musikeskola

### 22,15 ZINEA

"Nell"

## txandak

### FARMAZIAK:

EGUNA	EGUNEZ	GAUEZ
20, larunbata:	Bidasolo	Bidasolo
21, igandea:	Bidasolo	Bidasolo
22, astelehena:	Yudego	Escala
23, asteartea:	Yudego	Escala
24, asteazkena:	Yudego	Escala
25, osteguna:	Yudego	Escala
26, ostirala:	Ormazabal	Escala

### FARMAZIEN ZUZENBIDEAK:

Escala: Rekalde 1, Plaentxi  
Te. 75 16 38

### OKINDEGIA:

21, igandea: IDARRAGA/EIZAGIRRE

## ZINEA



### Leyendas de pasión

**Zuzendaria:** Edward Zwick.  
**Antzezleak:** Brad Pitt, Anthony  
Hopkins, Aidan Quinn, Henry  
Thomas, Julia Ormond.

Joan den mendearen bukaeratik 60.  
hamarkadara bitarteko Montanako  
rantxeroen benaunaldi baten historia  
kontatzen du pelikulak. Hiru seme  
dituen ejerzitoko koronelaren etxera,  
eskola amaitzean seme gazteena  
heltzen da bere emaztegaiarekin.  
Anaiak batzen dituen lokarriak oso  
tinkoa dela ematen duen arren,  
hautsi egingo da anaia gazteena  
Bigarren Gerrate Mundialean hiltzen  
denean eta beste bi anaiek honen  
emaztegaia zena konkistatu nahiko  
dutenean.



### Norte

**Zuzendaria:** Rob Reiner  
**Antzezleak:** Elijah Wood, Bruce  
Willis, Jon Lovitz.

Norte, gurasoen aldetik maitasun  
gutxi jaso duen mutikoa da. Jaio  
zenean, eskura zegoen mapa batean  
ikusi zute lehen izena jarri zioten.  
Orain 11 urte ditu Nortek, eta gelan  
lehendabizikoa da denean. Abokatu  
oportunista batek gurasoengandik  
"dibortziatu" egin behar denaz  
konbentzitu nahi du ospea lortzeko  
asmo ustelarekin. Epaileak baldintza  
bakar bat jarriko du: hiru hilabeteren  
buruan ganorazko ordezkotako gurasorik  
ez topatuz gero, orfanato batean  
sartuko dute.

# ALKATE ETA ZINEGOTZIEN EJENPLUA NAHI

## UDAL HAUTESKUNDEETAN EUSKARAZ DAKITEN HAUTAGAIK BULTZATZEKO KANPAINA

 Iturria: EAJ/PNV

HAUTAGIAK	ULERTU	HITZEGIN
Guillermo Garate	2	2
J. Mari Oruesagasti	2	2
Isaak Loiola	2	2
Belen Elortza	2	2
Iñaki Oñederra	2	2
Ana Santolaia	2	2
Gotzon Arrieta	2	2
Kristina Gonzalez	2	2

0. Ezer ere ez. 1. Zerbait. 2. Ondo.

 Iturria: HB

HAUTAGIAK	ULERTU	HITZEGIN
Pedro Mendizabal	2	2
Juan Carlos Marcos	2	2
Xabier Agirre	2	2
Asier Zengotita	2	2
Izaskun Arozena	2	2
Iñaki Odriozola	2	2
Arnaldo Otegi	2	2
Itziar Elortza	2	2

0. Ezer ere ez. 1. Zerbait. 2. Ondo.

 Iturria: EA

HAUTAGIAK	ULERTU	HITZEGIN
Ales Arrieta	2	2
Fermin Senosiain	2	2
Itziar Goñi	2	2
Migel A. Izagirre	2	2
Miriam Etxaniz	2	2
Pedro Larreategi	2	1
M. Angeles Ortuoste	2	2
Agustin Ansoa	2	2

0. Ezer ere ez. 1. Zerbait. 2. Ondo.

 Iturria: PSE/EE

HAUTAGIAK	ULERTU	HITZEGIN
Nieves Catarain	1	0
J. Manuel Herrero	0	0
Julian Garmendia	2	2
Sebastian Bellota	0	0
Miguel Fernandez	0	0
Carlos Colmenero	0	0
Javier Centeno	0	0
Begoña Larrauri	2	2

0. Ezer ere ez. 1. Zerbait. 2. Ondo.

 Iturria: IU

HAUTAGIAK	ULERTU	HITZEGIN
Juan I. Ausin	0	0
Fermin Arce	0	0
Francisco Revert	0	0
Teresa Bachiller	0	0
Ramon Dominguez	0	0
Agustin Sanchez	0	0
Francisco Galeano	0	0
Julia Feijoo	0	0


0. Ezer ere ez. 1. Zerbait. 2. Ondo.

 Iturria: PP

HAUTAGIAK	ULERTU	HITZEGIN
Juan Carlos Avian	1	1
Miguel Solans	0	0
Nicolas Sanchez	0	0
German Sela	0	0
Cristina Seco	0	0
Antonio Sanchez	0	0
Alfonso Sanchez	0	0
Maria Suarez	0	0

0. Ezer ere ez. 1. Zerbait. 2. Ondo.





- 1- GUILLERMO GARATE URZELAY**
- 2- Jose Mari Oruesagasti Soraluze
- 3- Isaac Loiola Zabala
- 4- Belen Elorza Arrieta
- 5 - Iñaki Oñederra Ansola
- 6 - Ana Santolaya Gorostiza
- 7 - Gotzon Arrieta Vallejo
- 8 - Cristina Gonzalez Elkoru-Iribe
- 9 - Manu Astray Portos
- 10 - Agurtzane Arriola Agirre**
- 11 - Miren Lourdes Arozena Usobiaga
- 12 - Bittori Zabala Fernandez
- 13 - Elisabeth Amesti Bergaretxe
- 14 - Jesus M. Etxeberria Zubiaurre
- 15 - Alberto Iriondo Elustondo
- 16 - Jose Mari Etxeberria Mendizabal
- 17 - Jose Arakistain Arrieta
- 18 - Rosario Andonegi Garcia
- 19 - Jose Antonio Garitagoitia Loiola
- 20 - Jose Zubiaurre Leiaristi

Gaztetasuna eta  
Esperientzia  
Elgoibartarren Zerbitzura

